

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elias Atutxa Orobiobasterra

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1920-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Austoa auzoko Austoalarra etxean sortu zen 4 neba-arrebatatik seme bakarra izan zena. Ama bertakoa zuen eta aita Bernagoitia auzokoa. Errepublikako sasoiko Eubako eskola ezagutu zuen Durangoko maristetara joan aurretik. 18 urterekin, Espainiako Gerra Zibila bukatzeke zegoela, soldadu joan zen eta sei urtez egon zen Espainiako lurralde desberdinetan, baina sekula ez frontean. Baserrian jaio eta bizitakoa denez, beti ibili izan da baserriko beharretan. Zornotzako toponimiako ahozko era jasotzeko egindako grabaketetan bere emazte [Ageda](#)rekin batera hartu zuen parte.

Zintak

AMO-013

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-09
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Gonzalez, Lidia - Justo, Olaia - Osa, Argi - Beldarrain, Asier - Mugika, Antxon - Goikoetxea, Beñat - Aldazabal, Argiñe - Alcibar, June - Sulibarria, Unai - Bilbao, Julen - Azkarate, Asier - Izagirre, Eider

AMO-026

- **Proiektua:** Zornotzako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iruarizaga, Rakel - Olabarri, Ane
- **Data:** 2007-11-03
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Olabarri, Ane

AMO-040

- **Proiektua:** Zornotzako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iruarizaga, Rakel - Olabarri, Ane
- **Data:** 2007-11-03

- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Olabarri, Ane

Pasarteak

1. Eskola; 18 urterekin soldadu

- **Erref:** AMO-013/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Euban hasi zen eskolan, baina gero Durangoko maristetara joan zen, "Colegio San José"ra. 18 urterekin soldadutzara deitu zuten. Tirorik bota gabe, baina Espainia ia osoan zehar ibili zen sei urtez.</p>

Transkripzioa

- Zelakoa zan zure umetako hau Euba ingurue edo Eustoa ingurue?
- Beno ba, politte osake hemen eskolara lelengo jun nitzen Eubera, ta gero Durungora juen nitzen, Maristetara, hor, "Colegio San José Hermanos Maristas" eon zan ta haraixe, ta hantxe egin nittun urte batzuk, estudixetan. Apur bat, leiduten ta eskribitan-ta. Ta holantxik zen gazte denporie, ta hamazortzi urte allegeu jatenien, soldeu juetie tokeu jaten. Ta egon nitzen ixte sei urtien, soldeu. Batien, lehenengo Pamplonara jun gintzezan ta gero handik, Castellonera, frentera, ez jakun tokeu guri, tirorik-eta botatie ta gero akabau zan gerrie, ta gero ba ibili ein gintzezan Valenziatik, Albazete, Kanariasera be bai jun nintzan, Fuerteaventurara. Ta gero Bilbon atzera, beste urte bi, da ba holan akabau zen.
- Eta hamazortzi urtegaz juan ziñenien "ya" hemen gerrie bukatuta egon zan?
- Bai, paseuta eon zan bai.
- Ta derrigortute edo boluntario juan ziñen?
- Derrigorrien juan nintzen bai.
- Ta hemengo danok batera juan ziñien zuen kintxakoak-edo?
- Bai, nire kinttakuek danak hil dire, neu bakarrik naz bizirik.

2. Soldadutza luzea

- **Erref:** AMO-013/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:04:57. **Bukatu:** 00:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Soldadutza Iruñean hasi zuen. Handik Castellóra; eta, geroago, Teruelera eraman zuten. Fronteko bigarren lerroan egon zen beti,

tirorik bota gabe. Bilbon ere egon zen bi urtez, afaldu eta lo etxean egiten zuen.</p>

3. Kuarteleko lanak

- **Erref:** AMO-013/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:07:44. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan, sukaldeko lanetan edo garbiketan laguntzen, instrukzioa egiten, eta horrelako jardueretan ematen zuen eguna kuartelean. Kuarteleko zorua nola leuntzen zuten azaltzen du. Jatorduetan, dilistekin (lentejak) batera harri-koskortxo asko etortzen ziren platerera.</p>

Transkripzioa

-Kuartelien ze biher eitten zenduen Garellanon?
-Ba, kuartelien, patatak zurittu lelengo iguel bazkarittekota ta kuartela garbittu ta instrukziñue ein ta holakoxe zerak eitten giñuzen. Ta kuartela garbittu beheien lustrie emonda, e! baldosieri. Baldosie egoten zan, ta zerie emon ta brillua atara. Ta badakixu zelan ateraten geuntsen? Ba ohol baten mantie ipiñi, ohol bateri, batu apur bet eta, ta ohol ganien planteu bat ta tiretu ta narras eruenda mantie. Ta brillue urtetan eben zeren. Ta, ba, hori sargentuek-eta ikusi barik, e? Ostien hasarre, mantak estropeau eitten diela ta! Baia, ikusi ezkerot, arresteu be igul eitten eben.
-Emaztea: Ta lentejak? Lentejak...
-Bai, lentejak jaten giñuzen.
-Zelakoak?
-A! Bai, hor Bilbon ondo. Baia zeren, frentien-ta, harrixekaz. Harri koskorak. Aittuten dozue? Platerien honan ein eta "rrrr" bueltan zaratie, ta hondarrera jueten zien ta kontuz-kontuz aparteu ein biher lentejak goittik hartute, ba, harrixetorri ez deitten. Ta harri asko! Iguel harri [...] asko! harek platerien hondarren agertzen zien.

4. Kuartelean goseak

- **Erref:** AMO-013/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan gosea pasatu zuen. Hasieran Iruñeñean ondo jaten zuten, baina Bartzelona hartu zutenetik gose asko pasatu omen zuten soldaduek.</p>

Transkripzioa

- Ta bai, gosietasetan giñun. Gero, hor, gu jun gintzezanien ia lelengotaz ondo, ondo jaten giñun Pamplonan, ba patatak okeliaz iguel, okeliaz

nahasteute apurtxu bat, ta peskie. Ta eguenetan, holako peskadillie buztana dauen lotute zerien, frijidute orixotan, ba bakotzari bat, gero. Ta baia gero, Bartzelona-edo hartu zanien, ia sartu zan gose bat, bueno ba, orduen esate oskuen, “pescado en salsa” esate oskuen ez, iguel, ta “pescado” bai, hazurrek saltsan, ezebez, ta gosie, bueno ba, ta paseu ein biher, gosie paseu ein biher, ta ogi baltza, ta jaten giñun bezkaldu orduko emoten oskuen ogixe ta bezkaitten hasi orduko ogixe janda.

- Ta zer gosetute?

- Bai goziaz, ta han Albaceten euki giñun hor amistadetxo bat matrimoniño bat ta haixek ogi apur bat ta holan zuzentzen oskuen. Ba danari ez, geuri, erropie garbitu ta eitten oskun, ta iguel holako ba panezillo bat edo lantzien behin emote oskun. Ta jolin, ba pozik.

- Ta ogi baltza esan dozu?

- Bai, ogirik ez zeguen orduen , razionamentuen egon zan-ta.

5. Soldaduen soldata

- **Erref:** AMO-013/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:14:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Hasieran erreal bat (pezetaren 25 zentimo) eta geroago erreal bi egunean izan zen orduko soldaduen soldata. Zigarroak erretzen soldadutzan ikasi zuen; tabakoa errazionatuta izaten zuten.</p>

6. Nobio kontuak; bekatuak

- **Erref:** AMO-013/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:39. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Soldadu egon zen garaian ez zuen neska-lagunik. Neskak ikusten zituen, baina urrunetik. Emaztegaiari ez omen zion musurik eman ezkondu ziren arte. Bekatua egiteak baino beldur gehiago emaztegaiaren belarrondokoak ematen ziola dio Eliasek. Pentsatzea ere bekatu omen zen orduan, eta pentsatzen zutena konfesatu behar izaten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta soldau egon ziñela ya nobixoak ziñien zuek?
- Ez. Orduen ez, hondiño ezetu barik egon giñien, bai.
- Ze sei urte soldadu egonda neskari ez zendun eukiko.
- Ez. Ez neuen eukin nobixarik, akordeu bez. Bueno, neskak ikusten giñuzen baia , neska polittek-eta.

- Baia ikusi bakarrik.
 - Bai, ikusi bakarrik.
 - Hurreratu bez.
 - Bai, hurreratu bez. Oingo moduen holan mosuek-eta? Orduen ez zan mosurik bez emoten, ez.
 - Nobixieri bez?
 - Ba, nobixieri be ezkondu arte mosurik bez.
 - Mosurik bez?
 - Errespetue.
 - Mosuren bat bai...
 - Ez ez, mosurik bez.
 - Baia ze ba? Zuek pentsetan zenduelako pekatue zala edo gero konfeseu ein biher zalako edo zer dala ta hori?
 - Bai, mosue emoten hasi ezkerro, igul, plastadie.
 - A! Berak?
 - Bai.
 - Orduen, gure zendun zuk?
 - Bai, gure bai.
 - Ta gero, ze ezebez ez bazendun eitten zer konfesetan zendun ba?
 - Bueno ba, konfesetan? zer konfesetan geñun ?
 - Musurik be ez bazendun emoten?
 - Bai, ba holako pekaturik ez gendun konfesetan, ez giñun eitten-ta.
 - Orduen ze pekatu?
 - Bueno ba, horrek sekretuek. Pentsamenduek-eta. Ze pentsetie be pekatue ei zen, orduen, bai, neska bateaz pentsetie be iguel, pekatu.

7. Herriko abade eta elizkizunak

- **Erref:** AMO-013/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Auzokoek karmeldarrengana lehenengo, eta pasionistengana geroago joaten ziren. "Padre Eleuterio" sermoilari ona gogoratzen du Eliasek. "Cofradía de la Pasión" kofradia sortu zuen sermoilari horrek. Lehen elizkizun gehiago egiten ziren orain baino.</p>

Transkripzioa

-Elkarrizketatzailea: Eta hemen nor ibiltten zan abade han sasoiene?

-Elias: Ba hor Larran edo eon ziren karmelittek. Hara jueten giñen, ta gero hemen hau... pasionistek planteu ziren, ta hor famoso bat egon zan, Frai Euleterio ba, ta sermoilarixe ona izen zan, ta ha gero zertu zen... kofradixa bat formeu eben, "Cofradia de la Pasi3n"-edo, zelan zan? holakoxe bai. Ta oin, oin be ni hantxe nau, ta hau be bai. Baia oin ez dau holako zeremonixe, orduen eoten ziren zerak elizan ta eitten giñuzen zeremonixe asko , ta oin zaharrak, gaztiek ez dot pentsetan nik eitten derenik. Ta oin dau beste bat, Jaio, ta Jaio etorten jaku lantzien behin komuniñue ekarten.

-Andreak: Esaizu, konfeseu be ez dauela eitten hak!

-Elias: Konfeseu be ez dau eitten, pregunteu be ez dosku eitten, pekaturik-eta ...ez deko itxurie

-Elkarrizketatzailea: Ya pekatu nahiko eiñikuek izengo zarie-ta...

8. Mezak eta elizak

- **Erref:** AMO-013/014
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Domekatan San Antonioren ermitan entzuten zuten meza. Larreako jaietan Larreara joaten ziren mezara. Zornotzako zein San Migeleko elizara ere joaten ziren lantzean behin.</p>

9. Juan XXIII

- **Erref:** AMO-013/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Latinez emandako mezak ezagutu zituen. Sermoiak euskaraz ere bai. Abade batek sermoilaritzari buruz esaten zuena azaltzen du Eliasek. Abadeak jendeari bizkarra ematen ematen zuen meza. Juan XXIII.a Aita Santuak aldatu omen zuen hori, abadea eta eliztarrak aurrez aurre jarritz meza emateko orduan.

10. Larreako meza kantatuak

- **Erref:** AMO-013/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Larreko elizara joaten ziren Zornotzako ikasleek erresponstu hunkigarriak abesten zituzten. Eliasek oso gustuko zuen meza kantatu haietara joatea. Trenez joaten ziren Larreara. Gerra aurretik bazegoen tranbia ere, baina gerraostean ezkutatu egin zen.</p>

Transkripzioa

- Ba lehen Larran estudiantiek, mutil gaztiek e, ba egoten zien koroia eindda uliaz: honan ebai bai barrenetik dana, zeruen, ta gero hemen itxi ta gero goidxen be ebaitte. Koroia eindde zeraaz. Eta hamazortzi-hogei urteko mutillek. Iguel Larrara juen ta etorten zien igual hogeta hamar estudiante edo zerien, mezara iguel, erresponstue kantetan. Baiña kanteu harek erresponstue...! Lastimoso! Noberari be negarra emoteko moduen [...ten] zan, e, peniaz. Bai, danak batera eta zelan kanteu, Larran! Bai, ni gusture jueten nintzen mezie entzuten, haren kantak entzuten.

- Larrara? Zelan? Ze hametik urrun dau Larra.

- Bai, trenien juenda Zornotzaraiño ta gero handik oiñez.

- Tranbixe hemen ez?

- Gerra aurrien tranbixe eon zan, baia gerra ostien, akabeu zan tranbixe. Hor zubixek bota zittuezan ta gero, ba, atzera ez zan ipini tranbirik. Zornotzaraiño ipini eben tranbixe, ta hemetik Durungoraiño egoten zan lehenau, ta, ba, orduen akabeu zien hemetik, Zorrontzatik Durungoraiño tranbixe gehixau ez zan etorri. Baiña jueten giñen, ba, trenien. Ta trenetik gero Larrara tiradatxue. Ta meza kanteue-ta eoten zan. Ta politto!

11. Tren elektrikoa; argindarra etxean

- **Erref:** AMO-013/017
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Garai haietan andreak eta gizonak aparte esertzen ziren eliza barruan. Gernikako trena ikatzarekin berotutako tren-makinarekin mugitzen zen, baina ordurako Durangoko trenak elektrizidadez ibiltzen ziren. Elias gaztea zela ekarri zuten argindarra etxera Eubako zentral txiki batetik. Lapurrak argindar-hariak harrapatu eta hilabetez egon ziren indarrik gabe.

12. Karburua eta petrolio-ontziak

- **Erref:** AMO-013/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Argindarra jarri aurretik karburuarekin edota petrolio-ontziekin argitzen zuten etxea. Ganbaran sua ez pizteko atentzio handiekin ibili behar izaten zuten.

13. Erregearen irudia eta gurutzea kendu zituzten errepublikan

- **Erref:** AMO-013/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Maristetan ikasi zuen Eliasek. Asturiasko Iraultza gogoratzen du, eta baita erregea kendu eta errepublika jarri zutela ere. Erregearen irudia eta gurutzea kendu zituzten eskolako ikasgeletatik. Dotrina eskolatik kanpo ikasten zuten.</p>

14. San Antonioko erromeria

- **Erref:** AMO-013/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Kalean ez zen aldaketa politikorik nabari errepublika garaian. Orduan, etxeetan irrati gutxi zeuden. Domeketan San Antonioko erromeriara joaten ziren dantzara. Mutilek pezeta bana ordaintzen zuten soinu-jolearentzako.</p>

Transkripzioa

- Ta holan kalien, ikusten zan Durengon eta Zorrontzan-ta mitiñek eta holako kontuek?
- Ez, guk ez giñun holakorik ikusten, ez. Horrek ba, lokaletan eingo zittuezan edo barruen-edo, ez giñuzen ikusten ta orduen telebisiñorik be ez egoen ta radixorik be gitxi. Radixo baten batek baeben, eukitzen eben, baia hemen inguruen radixorik dekena, orduen radixoa dekena handixe zan, ta ez eben...
- Ta nora joaten ziñien zuek radixoe entzuten?
- Ba, inora bez. Ba, inora bez ez giñen jueten radixoa entzuten. Ba, domeketan San Antoniñora erromerixera, hantxe jantzaldi batzuk ein ta ba, soiñue jotzen eban batek eta pozik.
- Zeinek jotzen eban?
- Bai, hil zen Txarterina batek, bai. Zelan eukan izena Txarterinak?
- Emazteak: Prizio
- Prizion anaixiek Mariano, Mariano Txarterina. Ha zan soiñularixe hemen Eubekue ta hak jotzen eban soiñue domeketan ta pezeta bat edo kendu ta

arratsaldien ta hala! Libre gero jantzan eittie.

- Pezeta bat kendu noreri? Pezeta bat noreri kendu?
- Mutillari, neskak debalde.
- Zer dala ta?
- Pribilejixue.

15. Dantza lotua bekatu

- **Erref:** AMO-013/022
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:36:30. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Egindako dantza lotuak bekatu bezala aitortu egin behar ziren. Diman dantza lotua debekatuta omen zegoen.</p>

Transkripzioa

-Eta ibiltzen ziñen andrari ebatute?
-Bai apurtxu bat ebatute bai, ibiltzen giñen.
- Emaztea: apurtxu bat
- Baia ez zan pekatue, ala?
- Ez, ez zan izengo pekatue.
- Hor fraille batek edo etorte zan hemen zahar bat gure aitten edadeko bat ta hemen portalien ta Dimekue zan Artengue, ta horra Larrara joan ei zen baten konfesetan ta esan /eitsen/ ei zotsen: "Baltsiurik ein dok?" baltsiue badakizu zer dan? Ta, "Bai jaune", "Nungoa haz hi?", "Dimekue", "Baia Dimen baltsiuen ein dok?" Dimen probidute ei zeuen orduen, ta bueno, "Dimetik hor aparte Arten ez dakit ezetzen bozun", /esantson/ esan zotsen abadeari, ta "bai!", ta "han eittenzue / eiten dozue/ jantzan baltsiuen", ta "bai!", "barriro eingo dok /eingok/? esan zotsen /esantson/ ta, "bueno ez jaune", "barriro eingo dok /eingok/?", "ez jaune". Ta hurrengo urtien be juen ta ezetu hak, ta: "baltsiurik ein dok?" ta, "bai jauna". "Hik ein nik parkatu txarto goazazek bai? ta barriro ez etorri nigana" /esantson/ esan zotsen frailli horrek. "Hik ein ta nik parkatu", ta "gero ya gahixau joan be ez nik" berak, ta holango txiste batzuk kontatzen zittuen.

16. Emaztegaia Durangoko erromerian ezagutu zuen

- **Erref:** AMO-013/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:42:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Dantzaldi bat egin ondoren, Eubako Pijon tabernan musean jokatzten zuten. Durangoko plazan egiten zen erromerian ezagutu zuen gero emaztea izango zena.</p>

Transkripzioa

- Orduen guk eitten giñun erromerire jantzaldi batzuk eiñ ta zerien ta, danakin, neska guztixekin. Gero tabernan egon, hor “Pijon” esaten dotsiena /esatetsiena/ ta haraixe juen ta musien.
- San Antoniñon?
- Euben, ba hamabixek inguru artiñoan musien eitten giñun . Ta gero etxera.
- Ta neskatan bapez?
- Neskatan bapez, orduen.
- Emaztea: [...]
- Zelan ezautu zendun ba andrie?
- Durengon, Durengon, Durengora juten giñen ta ba hau be Durengora ta han erromerixe egoten zan Durengon be ta ba hantxe jantzan ezautu giñun. Plazan eitte zan erromerixe Durengon ta ba, halan ezetu giñen.
- Ze Ezkurdin edo plazan? Ezkurdixen edo plazan bertan?
- Ez, plazan, plazan egoten zan.
- Orduen jantzan ezeutu zendun?
- Bai, jantzan ein neban beronegaz ta ba.
- Zeu hurreratu ziñen edo, zeu hurreratu?
- Bai, baten batek eiñ ein biher deu /bideu/, eurreratu.
- Emaztea: Oiñ neskak eurreratuten diez.
- Ta baietz /esausten/ esan eusten ta, baietz /esausten/ esan eusten beronek be, ta tire ba, hala.
- Eta, gero? Jantza ein ta?
- Ta gero eurrera, atzera hurrengo domekan be , ta gero ta eurreratxuau, ta eurreratxuau, ta ba, hala. Baia beste kontuetan ta ez, holakorik ez, pentseu bez nik horretan konberzaziñorik be.
- Baia laztanen bat edo zeozer eingo zendun, ba? Ikuturen bat, azaletik.
- Ikuturik bez, ikuturik bez.
- Baiña tentaziñoa eukiko zendun?
- Tentaziñoa bai, baia.
- Ta gogoa ta.
- Bai, baia, aguanteu in biher, fraillien moduen.

17. Igandetan ondo jantzita eta kolonia usainarekin

- **Erref:** AMO-013/025
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Igandetan kalera joateko hobetoxeago jantzten ziren astegunetan baino. Neskak ere hala egiten zuten.

18. Ogi barik gosea ezin kendu

- **Erref:** AMO-013/028
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ogiz eskas ibili omen ziren, eta ogi barik gosea kentzea zaila dela dio Eliasek. Errotak itxita egon ziren, eta irin falta zegoen. Guardia Zibilek zaintzen zituzten errota inguruak. Oromiñoko Erdiko errotara eramaten zuten alea ehotzera.

Transkripzioa

- Eta, esan dozu jateko faltie eukin zenduela. Jateko faltie, raziñoagaz esan dozu.
- Emaztea: Hor ogixe ta.
- Ba, ogixe-ta, ta bakizu.
- Baia, ogixe ez zenduen etxien eitten?
- Emaztea: Bai, baia hor urunen faltan, urune galazota euen.
- Ogixe ona da, ta ogixek gose asko kentzen deu, ogixe falta badekozu egun askotan, gosie ez da kendu be eitten. Ez, ogixek bete eitten deu.
- Zer eukin zenduen, urun faltie?
- Bai. Urun faltie. Baia errotak be ba eruen ein bier ixeten zan ta.
- Konteu, konteu.
- Bai, konteuko dotset, bai.
- Emaztea: Urun kontuek.
- Bai. Orduen errotak be zertu egon zien, galazota-edo, ta urune eittie be. Ta ba iguel jun biher izeten zien geubetan-ta jun biher errotara. Guarda zobiliek edo ostien harrapeu edo ezkerro ba kendu edo zorrue be iguel. Ta geubetan-ta jun biher ta errotarixek be billurrez egoten zien ixoteko. Bai.
- Ta nungo errotara joaten ziñen?
- Hara Oromiñora. Gorromiño bakizu nun dauen? Hara.
- Zer errota, dauena han? Ba Oromiñon badau bat baiño geixau, ezta?
- Bai Oromiñon Erdikoerrotie, Erdikoerrotara. Ta Bekoerrotan dau beste bat. Ta gero gorau be egongo da besten bat. Txarroan-edo.

19. Artoa Oromiñoko errotara

- **Erref:** AMO-013/030
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errotariak ehotze lanagatik alearen %10a kentzen zuten. Etxeko alea Eliasek eramaten zuen astoan errotara. Artoa Oromiñoko errotara eramaten zuten, baina garia Zornotza edo Durangoetan ehotzen zuten.

20. Baserritarren ekoizpenaren zati bat udaletxera

- **Erref:** AMO-013/032
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:53:46. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Etxeko gariaren eta artoaren zati bat udaletxean eman behar izaten zuten. "Abastos"ek kudeatzen zituen baserritarrek emandako kupoak.

21. Txerria hiltzea; diru-aldaketak

- **Erref:** AMO-013/033
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:57:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Txerria hiltzea libre zegoen, baina hiltzeagatik zerga bat ordaindu behar izaten zen. Errepublikazaleek lehenengo, eta nazionalak gero, dirua aldatu egin zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dozu errota asko zarratute eta, txarrixen eta behixek eta hilttie?
- Ba, txarrixen hilttie libre egoen.
-Ah, bai?
-Bai... Txarrixen hilttie... gero zeozer pageu ein biher izeten zen, zeozer inpuestoan bat egoen txarrixen hilttiagaitik, errekonozidutiegaitik edo ez dakit zer, zeozer. Baia txarrixen hilttie libre egon zan.
-Eta esan dozu igual zozer pageu biherko zala, baña pageu ze dirugaz? Ze hor kanbixoa egon zan, ezta? Gerra eurreko dirue ta...
-Bai, baia hemen eon zirenien zerak ba alderdi batzuk, zerak, errepublikanuek edo zerak ta harek diru bat euki eben /eukibien/, ta haixeaz diruaz. Ta gero bestiek etorri zirenien beste diru klase bat, kanbixeu ein eben, bai, dirue kanbixen ein eben.
-Eta ondo atondu ziñien?
-Eh?
-Ondo atondu?
-Nik ez dakit gure aitte edo zer izengo zan, ba, galtzarixaz izengo zan irabaziaz barik. Iguel ehun emon ta eurek berrogeta hamar iguel, ta... bai, ez zan izengo emotie gehixau.

22. Soldadutzan zorriak ugari

- **Erref:** AMO-013/034
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:57:22. **Bukatu:** 01:01:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Etixerako ura errekatik edo iturritik ekartzen zuten baldeen laguntzaz. Arropak etxean garbitu ondoren, garbitokian astintzen zituzten. Soldadutzan alkandorak sugarren gainetik pasatzen zituzten, zorriak kentzeko.</p>

23. Kuartelean zimitzak nagusi

- **Erref:** AMO-013/035
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:01:32. **Bukatu:** 01:03:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Soldadu egon zenean, kuartelean ez zegoen zorririk, baina zimitzak (txintxeak) ziren egonezina sortzen zutenak.</p>

24. Garia ereiten azkenak

- **Erref:** AMO-013/037
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:04:37. **Bukatu:** 01:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Soldadutzan zegoela, etxetik dirua igortzen ziotenean pozik hartzen zuen. Soldadutzatik itzuli zenean baserrian jarraitu zuen lanean. Inoiz ez du baserritik kanpo lanik egin. Ganaduez gain pinu basoak ere bazituzten etxean. Garia ereiteari utzi zioten azken baserria izan zen Elisasena. Antzinako auzolaneko gari-jotzea desagertu zenean, eurak ere garia ereiteari utzi egin behar izan zioten.</p>

Transkripzioa

-Eta kartatan zeozer bidaltzen zendun zuk dirue edo eurek, dirurik edo?
-Ba, jirue edo botaten zan korreetik ta paketiek be bieltzen zien.
-A bai?
-Bai, ta jirue aillege zanin [...] allegetan zanin pozik, ba jirue dekola-ta.
-Ze ba? Zer zan hori jirue?
-Ba, jiro postal edo izengo zan, ba ez dakit ba nik zelan ixete zan, geixena kobreu eitten zan-ta, hamen depositue ezkeru ba kobreu, ba Sarjentuei esatie baiño zelan jirue dekoan edo ez (...)
-Eta gero hori zuk soldadutzatik buelte ziñenien hemen zertan hasi ziñen?
-Hemen zetan?
-Bai biherrien, kanpoan, baserrixen?
-Ba, baserrixen.
-Beti baserrixen?

-Bai
-Kanpoan sekule ez zara ibilli.
-Ez
-Eta baserriko biherragaz bizitzeko moduen ta hori seme-alabari estudixoak emoteko-ta?
-Bai, ba basuek euki giñuzen ta basuetan be bihera egoten zan ta piñuek eta ba goberneu ein biher, bota be bai ta sartu-ta, holantxik, hementxe ganauek ta ba artue-ta erain ta garixe be bai ereitten giñun, gu azkenekuk izen giñen garixe ereitteari itxi gentsela azkenekuek . Bai hemen jentiek... nik, guk baiño ariñau itxi otsien /itxitsien/ garixe ereitteari ta guk hondiño erain eittten giñun ta azkenien ba itxi izen biher giñun ze bakarrik geldittu ezkeru ez egoen laguntasunik be, joteko be garixe joteko-ta be ta zer ein-ta itxi gentsen.

25. Garia irinetarako

- **Erref:** AMO-013/038
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:07:00. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Garia eskuz jotzen ez zuen ezagutu Eliasek. Makinaz nola jotzen zuten azaltzen du. Garia gehienbat irinetarako erabiltzen zen, baina oiloei ere ematen zieten apur bat. Irinarekin egiten zuten ogiak astebete ondo irauten zuen.</p>

26. Labesuko ogi distiratsuak

- **Erref:** AMO-013/039
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aza-orria jartzen zien amak labesuko ogiei. Horrek distira berezia ematen omen zien ogioi. Amak ogia nola egiten zuen azaltzen du.</p>

27. Azal-biko taloak egiten zituzten

- **Erref:** AMO-013/040
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Azal-biko taloak egiten zituzten, oso gozoak. Esnearekin, arrautzekin edota urdaiarekin jaten zituzten taloak. Labean egindako artoa ere oso gustuko du Eliasek.</p>

Transkripzioa

- Taloa-ta be eingo zenduen?
 - Bai, taluek, bai, taluek goxuek eitten zien, ba, zer bikoaz esaten da, azal bikue talue, aittu dozu? Ba, azal bi, taluek alderdi bixetatik azalak, ta ba goxuek izeten zien. Lelengo ba, hori, urune ta zerien ta bolie, ta jo-jo ta ipiñi talo parien ganien ta lehenengoko bueltie emon, ta gero atzera be talo parien ganien,ta gero, zera gero iguel han astinddu eitten zien, bakizu zer dan? "hinchar", ta gero taluek ba zera, azala eukitten eben. Ta, esniaz be iguel, edo gero pernullaz edo arraultziaz nahasteute, pernullie sartanien, ta gero, taluaz jan, zelako goxue. Bai, ta urdaixe-ta, urdaixe bai talo bittartien, zelako goxue izeten zan. Untxe be agora etorten jat gustue. Bai.
 - Oin ez dozu jaten talorik iñoz?
 - Oin ez deku urunik eta ez dogu jaten.
 - Ta morokille?
 - Morokillik bez, ba, hor Elorrixoko batek, elektriziste batek, ekarri oskun artue laban eindde, artue. Ta Gabonetan zera, txiki-txiki ein zatixek, ta esnetara bota, ta esnetan irikin bat emon, ta jan gozo, ha be artue, bai.

28. Artoaren atal guztiak aprobetxatzen ziren

- **Erref:** AMO-013/042
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:15:22. **Bukatu:** 01:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Arto irina galbahetu eta gero geratzen zen azala oiloei ematen zieten. Azal horri "kapatxa" deitzen diote. Arto bizarrarekin erretzeko zigarroak egiten zituzten. Koltxoiak artilearekin egiten ziren. Arto txokorrak sutarako onak ziren. Umetan txokor dorreak egiten jolasten ziren.</p>

29. Umetako jolasak

- **Erref:** AMO-013/043
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:18:26. **Bukatu:** 01:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolas batzuk aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Zetan olgetan zenduen umetan?
- E?
- Olgeu zetan?
- Ba orduentxe, ba, kartetarik be ez zan egoten, ta... ba holakoxe gauzetan. Ta pelotarik be ez zen orduen oingo moduen...
- Ez? Ez zenduen eitten? Ardi laniegaz edo narruegaz edo...?
- Ez... edo soka, soka edo holan ibiltten zien. Ta beste... kanastan-edo esaten jakon, beste txapa batzukaz. Hor poxpoluen kajie, poxpoluen kajak dibujuek eukitten zittuezan, ta harek gordeta eukitten giñuzen. Ta harek ipini harri baten ganien ta hareaz [txapiatz] jo ta kentzen. Ta holantxek. Bai.
- Neskakaz batera? Alkarregaz?
- Bai. Neskak be jantzan edo, zeraaz, soka ajillek izeten zien. Ta bueno....

30. Laia eta goldea

- **Erref:** AMO-013/044
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:19:50. **Bukatu:** 01:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Etxean laiak bazituzten, baina berak lan gutxi egin zuen laian. Goldeak ordezkatu zuen laia. Sei-zortzi lagun elkarrekin laian ikustea gogoan du Eliasek.

31. Lehengo lan gogorak orain makinek egiten dituzte

- **Erref:** AMO-013/046
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:22:30. **Bukatu:** 01:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Lehenagoko baserriko lan gogorak gaur makinekin egiten dira. Goldeari eskuz buelta eman, satsak atera, azpigarriak ekarri... lan gogorak izaten ziren. Orturako landareak etxean hazitakoak edo erositakoak erabiltzen zituzten. Satsa hobea da orturako ongarri kimikoak baino.</p>

32. Berorika, zuka edo hika

- **Erref:** AMO-013/048
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:26:52. **Bukatu:** 01:29:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Abadeei berorika zuzentzen zitzairen, baina eurek mutilei hika. Dimako mutil baten konfesioa kontatzen du. Eliasek gurasoei, arrebei eta semeei zuka berba egin die beti. Lagun artean, baina, hika egiten zuten.</p>

33. Berna auzoan suitzarrarekin gertatutako pasadizoa

- **Erref:** AMO-026/002
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:01:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Zornotzako Berna auzoan gertatutako pasadizoa. Bertako jaiak nola hasi ziren. Behin gizon bati kotxea izorratu zitzaion Berna parean. Auzoko batzuk laguntzera joan zitzaizkion. Gidaria suitzarra zen eta auzoaren izena Berna hiriarekin lotu zuen. Gizona enbaxadorea omen zen eta hura etorri zenean eman omen zitzairen hasiera jaiak.

34. Asko hazi da Zornotza

- **Erref:** AMO-026/004
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:03:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai batean Zornotza txikia zen eta denek elkar ezagutzen zuten. Asko hazi da eta jende asko etorri da kanpotik. Zornotzan egin ziren lehenengo pisuak.

35. Garai batean denak elizara

- **Erref:** AMO-026/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai bateko kontuetatik jendea elizara joatea botatzen du faltan Agedak. Garai batean denak joaten ziren. Beraiek oraindik ere domekero joaten dira normalean.

36. Soldadutzara joaterako atera zuen gidabaimena Eliasek

- **Erref:** AMO-026/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:04:42. **Bukatu:** 00:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Eliasek duela gutxira arte gidatu duela dio Agedak. Soldadutzara joaterako atera zuen gidabaimena. Baina gero 40 urterekin erosi zuen kotxea eta hasieran pixka bat kostatu egin zitzaion, denbora luzez ibili gabe zegoelako. Orduan askoz kotxe gutxiago ibiltzen ziren.

37. Gaur egun askoz ume gutxiago jaiotzen da

- **Erref:** AMO-026/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Agedak garai bateko kontuetatik jendea elizara joatea botatzen du faltan eta Eliasek, berriz, umeak. Gaur egun askoz ume gutxiago jaiotzen da. Durangora joaten direnean, ea zenbat emakume ikusten dituen haurdun begira ibiltzen da; "akabau ez daitten mundue".

38. Soldadutzan sei urte; gainontzean beti Austoalarra baserrian

- **Erref:** AMO-040/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:09. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Elias Atutxa, 87 urte. Austoa auzoko Austoalarra baserrikoa. Basoan ibili zen lanean. Abereak ere bazituzten etxean. 18 urterekin soldadu joan zen eta sei urte egin zituen soldadutzan. Gainontzean, baserrian bizi izan da beti. Bera lanean ibili zen basoen izenak.

39. Amorebieta-Etxanoko toponimia I

- **Erref:** AMO-040/006

- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Inguruetako tontor eta mendien izenak. San Pedro eta Santa Kurutz ermitak. Gorago Zamalloa mendia. Inguruetako toponimia.

40. Amorebieta-Etxanoko toponimia II

- **Erref:** AMO-040/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Inguruetako toponimia.

41. San Kristobal egunean erromeria Oizen

- **Erref:** AMO-040/011
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

San Kristobal egunean erromeria egiten zen Oizen eta inguruetako jende asko batzen zen.

42. Garai batean errekan arrantzan

- **Erref:** AMO-040/014
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Ibaizabal ibaiari "Errekanausixe" deitzen zioten. "Oromiñoko errekie". Arrantzan ibiltzen zen jendea lehen.

43. Eubako "San Pijon" jaiak

- **Erref:** AMO-040/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Eubako "San Pijon" jaiak, beraiek asmatutakoak. Euban ez zegoen ermitarik eta hango partez San Antonion ematen zen meza.

44. Tranbian Durangora, maristetara

- **Erref:** AMO-040/019
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:16:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Elias Eubako eskolan ibili zen umetan eta gero maristetan, Durangon. Tranbian joaten zen.

45. Bilbo-Durango-Arratia tranbia

- **Erref:** AMO-040/021
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:17:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Garai batean Bilbo-Durango-Arratia tranbia egon zen. Nondik pasatzen zen. Gerra sasoian zubiak apurtu ziren eta ez zuten berriz jarri. Gerora autobusak.

46. Durangoko maristak

- **Erref:** AMO-040/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Durangoko maristak. Garai batean irakasle guztiak maristak. Notak asteka ematen zizkieten.

47. Hainbat lekutako urak elkartzen dira Zornotzan

- **Erref:** AMO-040/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Inguruetako errekek. Zornotzan hainbat aldetatik datozen urak elkartzen dira eta euriteak direnean erraz egiten du gora.

48. Galdarak egiten ziren Bernan

- **Erref:** AMO-040/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

Laburpena:

Garai batean Bernan galdara-lantegia zegoen eta kobrezko galdarak egiten zituzten. Esaten zuten hango langileak gortu egin zirela ateratzen zuten zaratarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com